
Euskal Herria eredu *dêmoikratiko gisa*: Europa kosmopolizatu baten gobernanzarako ikuspegia birpentsatzen

Errasti, Ander

Globernance. Gobernantza Demokratikoaren Institutua
ander.errasti.lopez@gmail.com

E

Estatu-nazioen ereduaren gainbehera ikusten ari garen garai honetan, Euskal Herriko erakundetze prozesu berezia eredu emankorra izan liteke Europar integrazioa demokrazia gisa ulertu eta gobernantza eredu eraldatzaileak garatzeko. Atal honetan erakundetze eredu hori ikuspegi demokratiko batetik aztertuz gero etorkizunera begira Euskal Herriaren nazio demokratiko gisa erakundetze prozesuaren garapena sustatu eta bermatzeko ikuspegi emankorra izan daitekela defendatuko dut.

Giltza-Hitzak: Demokrazia. Federalismoa. Subirania. Europar Batasuna. Kosmopolitazioa.

“Komunitate erreflexibo eta post-konbentzional bat gure buruari besteen alde uko egiteko prest gauden hura da, ez besteak betidanik gure taldeko kide izan direlako, haien interesak –partekatzen ditugun arriskuak eta haiekin garatu ditugun ekimenen ondorioz– dagoeneko gure zati bat bilakatu direla ulertu dugulako baizik”. (Daniel Innerarity, 2014¹)

1. Sarrera: zergatik Euskal Herriaz eta ez, besterik gabe, munduaz?

Zer garrantzi ote dauka Euskal Herria bezalako errealitate abstraktu eta, mundu mailan alderatuz gero, ziztrin batek geroz eta globalagoa den mundu batean? Are gehiago, mundu mailan dauzkagun erronkak zeintzuk diren ikusirik (desberdintasun bidegabeen gorakada, emakumeen eskubideen zapaltzea, ingurugirorako mehatxu bat den eredu ekonomikoa, gizartearen zahartze prozesu azeleratua edo digitalizazioaren aroan oreka demokratikoak mantentzeko zailtasunak, esate baterako), autokonplazentzian erori gabe hauek Euskal Herriaren duten eragin erlatibo nahiko baxua dela esan ahalko litzateke. Hala, ba, zergatik ote da garrantzitsua Euskal Herriaz gogoeta egitea? Sarrera gisa, hiru elementu azpimarratuko nituzke lan hau jasotzen duena bezalako gogoeta kolektiboak

ezinbestekoak direla azpimarratzeko: pertsonak, aniztasuna eta demokrazia. Hiru elementu hauek ardatz gisa hartuz, globalizazioaren bilakaeraz aritzeko Euskal Herria edo beste edonolako eremuri buruz analisia egitearen garrantzia agerian geratzen da: globalizazioak azterketa Euskal Herria bezalako eremuetara mugatzeak baliogabetzen duen gisa, globalizazioa eter antzeko gune abstraktu batean gertatzen den zerbait dela aurreuposatzeak globalizazioaren erronkei behar bezala aurre egin ahal izatea oztopatzen du. Esan bezala, hiru ardatzek justifikatzen dute analisi hau.

Pertsonen dagokionez, munduan dauzkagun erronkak pertsonen gaiterik egon ezin direnez (besteak beste erronka hauek pertsonengan dutelako eragina) Euskal Herriaz hitz egiteak garrantzia dauka. Pertsonen beharrezko arazoei lehentasuna emateak perspektiba batetik zentzua eduki ahal balu ere (ikuspegi moral batetik lehentasunezko edo *prioritarian*² eta erabilera³ posizioetatik, esate baterako), horrek ez du pertsonen artean lehentasunak ezarri behar direnik esan nahi, izatekotan pertsonen bizi dituzten baldintzen artean baizik. Zentzu horretan, Euskal Herriaz aritzea ez dago munduko beste edozein eremuz aritzearekin kontrajarria. Euskal Herriaz gogoeta egiten ari garenean lehenik eta behin Euskal Herriaren bizi diren pertsonen ari baitgara hausnartzen. Izan ere, pertsona horiek dira Euskal Herria bezalako errealitate bati buruz hitz egiteari zentzua ematen dioten lehen elementua. Errealitate horren existentzia elementu ezberdin askoren arabera ezarri daitekeela argi baitdago: historia amankomun bat, ezaugarri etnolinguistiko partekatuak, ingurugiroarekiko harreman jakin bat, eta abar luze bat. Hare gehiago, ezaugarri horiek denboran zehar garatu eta mantendu izanak Euskal Herriaz pertsonak aipatu gabe hitz egiteak zentzua izan dezan dakar: Euskal Herriaz eremu geografiko gisa hitz egin ahal balu gabe nahitaez pertsonak aipatu gabe, esate baterako. Aitzitik, Euskal Herriaren oinarrian gauden pertsonak egongo ez balira, horrek ez luke zentzurik edukiko. Egia da Euskal Herria bera existitzen denik ukatzen duten pertsonak ere badirela (hirugarren atalean aipatuko dudana gisa). Honek ere, baina, Euskal Herria (eta beste edozein giza talde) pertsonen osatzen dugula frogatzen du. Pertsonen sortutako errealitateak nahitaez kontingenteak baitdira. Hala ba, Euskal Herriaz hitz egiteak pertsonen hitz egitea dakar eta hori ez litzateke sekula albo batera utzi daitekeen faktore bati izan beharko.

Bigarren elementua pertsonen lurralde eremu zehatz edo mugatu batean denbora luzez bizi direnean sortzen duten fenomenoak litzateke: aniztasuna. Izan ere, pertsona horiek euren gertuko inguruarekin daukaten etengabeko harremanean beste inon agertzen ez diren berezitasunak sortzen dituzte. Honek ez du esan nahi, inolaz ere, berezitasun horiek finkoak direnik, ez eta lurralde bereko pertsona guztiek elkarbanatzen dituztenik edo era berean elkarbanatzen dituztenik erez. Hare gutxiago mugikortasuna, erreal naiz birtuala, geroz eta zabaldago dagoen mundu batean (lurralde jakin bateko pertsonen beste lurraldeetatik zetozen pertsonekin betidanik harremanak eduki izan dituzten arren, tira). Aniztasuna kontingentea eta irekia dela onartzeak, ordea, ez du aniztasun horren oinarrian berezitasunak daudela ukatzera eraman beharrik. Hala ba, Euskal Herria bezalako errealitate bati buruz hitz egiteak munduko aniztasuna aberasten duen beste elementu bat onartzea dakar: ez Euskal Herria betidanik eta betirako aldaezin egongo delako, ez eta Euskal Herriaren bizi diren pertsonak euren artean igualak direlako, Euskal Herria errealitate bereizi (ez berezi) gisa aitortzen delako baizik. Beste era batera esanda⁴, bioaniztasunaren alde naturan izurdeak eta baleak bi errealitate bereizi direla onartu eta bakoitzaren biziraupena bermatu behar dela esanda bale guztiak igualak direla, baleak gaur egun diren gisa nahitaez mantendu behar direla, baleak eta izurdeak euren artean inongo zer ikusirik ez dutela edo baleak izurdeen gaiterik daudela esan nahi ez duen gisa, Euskal Herriaren existentzia aitortuz herri aniztasuna aldarrikatzeak ez du, bere baitan, inongo esentzualismo, naturalismo edo gorentasunetan erori behar garenik esan nahi. Besterik gabe, munduko aniztasuna aberasten duen errealitate bati onartzen dugula esan nahi du: ez gehiago, ez gutxiago. Baliteke etorkizunean gizakion bizi baldintzak era erradikalean eraldatu eta halako eremu bereziak desagertzen joatea aniztasunaren beste nolabaiteko adierazpenen alde. Gaur egun, baina, ez dirudi epe labur-erdian halakorik gertatuko dela erakusten duten adierazgarri objektiborik dagoenik, beraz homogeneizazioaren arriskuari eusteko bide bakarra gaur egun munduko aniztasunari eusten dioten Euskal Herriaren gisako errealitate berezietatik egiten duten ekarpena aitortzea ezinbestekoa da.

Hor egongo litzateke, hain zuzen ere, Euskal Herriaz hitz egiteak garrantzia duela azaltzen duen hirugarren elementua, pertsonak eta aniztasuna batzen dituen, hain zuzen ere: demokrazia. Izan ere, lurralde zehatz batean bizi diren

pertsonak ez dute demokrazia egun batetik bestera edo zerutik erori balitz gisa barneratzen, bertako aniztasuna bideratu naiz moldatuz sortzen diren gatazkak era zuzen eta bidezkoenean antolatzen saiatzearen prozesu historiko baten ondorioz baizik. Demokrazia ez baita forma hutsa, edukia ere baita: gizarteak barneratu behar duen zerbait, alegia. Honek, nahitaez, denbora eta baldintza batzuk eskatzen ditu. Isaiah Berlin-ek zioen antzera⁵, demokrazia indar normatiboa duen printzipio batean oinarritzen baita: hiritar guztiek eurengan hartzen diren erabakietan berdintasunez eragiteko gaitasunean, alegia. Indar normatiboa demokrazia onartzen denean berdintasun politikoa printzipio honek dagoeneko justifikaziorik behar ez duela gizarteak orohar onartzean datza⁶. Berdintasun politiko hau lurralde eremu batean eraikitzen bada ez da lurralde eremu horretan dagoeneko berdinak zirelako, anitzen artean nolabait antolatzekeo beharra zeukatelako baizik. Hots, demokrazia batean hiritarrek lurralde zehatz batean bizi diren pertsona anitzen arteko berdintasun politikoa barneratu dutelako. Hain da normatiboki indartsua demokraziak eskatzen duen lotura hori, berdintasun politikoa urratu nahi duten horiek justifikatu behar dutela euren asmoa, ez printzipio hau aldarrikatzen dutenek. Atal honi dagokionez, beraz, Euskal Herrian lurralde eremu batean bizi diren pertsonak mendeetako gatazka historia luze baten ostean hiritarren arteko berdintasun politikoa bermatzen duten erakunde demokratikoez osatzen dutela da gakoa. Erakunde horiek bestelako erakunde eremu demokratikoen parte bilakatu daitezke, noski, baina demokrazia ez litzateke eremu zabalago horietan ezerezetik sortu den zerbait gisa ulertu beharko. Demokrazia ez baita pertsonak eta hauek sortzen duten aniztasuna bideratzeko beharra aintzakotzat eduki gabe ulertzen: demokrazia formala (erakundeak, legeak, prozedimenduak) demokrazia sustantiboaren ondorioa baita eta hau, Euskal Herria bezalako eremuetan, urteen poderioz garatzen joan den zerbait delako.

Hori izango da artikulua honetan garatuko dudana ikuspegia. Alegia, demokrazia munduan orohar eta Europar zehazki krisian dagoen garai honetan⁷, Euskal Herria bezalako kasu batek Europar Batasunean aniztasuna eta pertsonak erronka amankomunei aurre egiteko gai izango den sistema demokratiko batean lotzeko argibideak eskaintzen dituela. Izan ere, Euskal Herria inolaz ere perfektua ez bada ere eta, era berean, ikuspegi *démoikratiko* batetik erakusten dituen hainbat ezaugarri ustezko bertute intrintseko batzuen ondorio ez

badira ere (orohar borondatearekin zerikusi gutxi duten elementu kontingente askoren arteko interakzioaren ondorio baizik), pertsonak eta aniztasuna bideratzeko potentziala duen eredu bat garatzeko gai ageri da gaur egun. Hau da, artikuluan azalduko dudana gisa, Euskal Herriaren egituratzea, maila askotan, ikuspegi *démoikratiko* batetik hobe ulertzen den gisa, Euskal Herria bezalako faktu politiko nazional baten barne naiz kanpo harremana ulertuz Europa *démoikrazia* gisa ulertzea errazagoa suertatzen da. Azken finean, ez da harriztekoa Europar Batasunaren ikuspegi konstituzional emankorrenetako batzuk Eskoziatik etorri izana⁸. Euskal Herriaren kasuan, leziorik emateko asmorik gabe eta bide batez geure buruaz hobe hausnartzeko ekimenean, demokrazia Europar *démoikrazia* gisa ulertzeko, hau da, aniztasunean batasuna (barne naiz kanpora begira) nola eraikitzen den hobe ulertzeko, ekarpenak egin ahalko genituzke gizarte gisa. Ikus dezagun lehenik, beraz, zein den Europaren kasuan bere aniztasuna eta pertsonen arteko oreka hori, ikuspegi *démoikratikoaren* ardatzak azaldu aurretik. Hau da, azter dezagun globalizazioaren eraginez Europar aniztasuna hartzen ari den bilakaeraren deskripzio sendoena: kosmopolitizazioaren planteamendu deskriptiboa, hain zuzen ere.

2. Europaren kosmopolitizazio prozesu geldiezina: deskripziotik proposamen normatiboetara⁹

Argitu beharreko lehen elementua itxuraz paradoxikoa den zerbait izango litzateke. Izan ere, hemeretzigarren mende hasieran mundua inperio zabalek osatzen zuten eta gaur egun, aldiz, estatu-nazioak dira munduan diferentzia nabarmen batekin gehien ikusten ditugun gizarte antolakuntza ereduak¹⁰. Nola da posible, beraz, mundua orokorrean eta Europar Batasuna zehazki kosmopolitizazio prozesu batean dagoela esatea? Ez al da kosmopolitismoa nazionalismoaren aurkari nabarmenena? Hala balitz ere (ez dela¹¹, baina horrek hemen jorratuko ez dudana eztabaida historiko, kontzeptual eta teoriko batera eramango liguke), kosmopolitizazio prozesu batean gaudela esatea ez da kosmopolitismoa gailendu dela esatea. Izan ere, kosmopolitizazio prozesu batean gaudela esateak globalizazioak gizarteko eragile (banako naiz talde) eta estruktura garrantzitsu guztietan eraldaketa prozesu bat ekartzen ari dela empirikoki onartzea besterik ez dakar. Hau da, ez da posizionamendu normatibo bat (i.e., mundua zentzu

honetan edo hartan aldatu beharko litzatekeela dioen teoria bat), planteamendu deskriptibo bat baizik. Honek ez du ukatzen adierazpen deskriptiboak orohar neutralak ez direla eta, beraz, halako deskribapenak proposatzen direnean ezinbestekoa dela tartean dauden elementu normatiboei adi egotea hauek ikuspegi kritiko batetik aztertu ahal izateko. Ez eta deskripzioa proposatzean zehaztasun maila handitzen doan neurrian deskripzio beraren inguruan geroz eta elementu eztabaidagarriago gehiago agertzen ez direnik. Arreta hauek ezinbestekoak direla ukaezina da analisi sendo bat egin ahal izateko. Hala eta guztiz ere, globalizazioak orohar eraldaketa kosmopolita bat ekarri duela arreta horiek aintzakotzat eduki ondoren agerian geratzen da ere, besterik ez bada Europaren kasuan¹².

Gakoa, eta hor egongo litzateke dimentsio normatiboan eragin handiena duen gaia, kosmopolitizazioak deskribatzen duen eraldaketa horren ardatzak zeintzuk diren behar bezala identifikatzea izango litzateke. Izan ere, errealtate sozial eta kulturalaren eraldaketaren ardatzak ondo identifikatzeak errealtate juridiko eta politikoa nola moldatu beharko genukeen eztabaidatzeko tresna egokiak emango dizkigu. Zentzu horretan, Europa espazio kosmopolitizatu bat dela adieraztean bi esparru aipatu ahaliko genituzke. Batetik, sarreran aipatu gisa, aurrez-aurretik ustez modu perfektuan definiturik zeuden giza taldeetan (nazioa, klasea, erlijioa) oinarritzen ziren jokamolde indibidualen gainditzea izango genuke: ez norbanakoen aspirazio normatibo edo jarrera politiko gisa, egiaztapen enpiriko gisa baizik¹³. Izan ere, giza banakoen nortasuna, harremanak eta bizi-proiektuak ez dira, dagoeneko, kanpotik jasotako ereduaren arabera era pasiboan finkatzen, edo ez soilik behintzat. Horrek ez du eredu horiek existitzen ez direnik esan nahi: ereduaren definizioa uanean-une eta lurralde eremu bertan tokian-toki aldatzen direla baizik. Gureari eutsiko bagenio, esate baterako, duela berrogei urte euskaldun izatearen esanahiak eta gaur egun duen esanahiak oso desberdinak dira. Zer esanik ez oraindik atzerago joko bagenu. Gaur egun, euskaldun izate edo nortasun hori euskaldun izatearen bizipen anitzek eraikitzen dute. Horrek ez du ukatzen, baina, bi dimentsioak existitzen ez direnik. Ez eta gutxiago dimentsio horiek taldea moldatzen duten beste hainbat dimentsiorekin batera existitzen ez direnik: klasea, generoa, sinesmen erlijiosoak eta abar¹⁴. Gizarte gisa mahai gainean dugun erronka nagusia dimentsio hauen ulermen, bizipen naiz eragina, giza talde nazionalarekin dugun

harreman politiko naiz kulturala barne, hogeitabat garren mendeko baldintzetara –kosmopolitizaziora alegia– moldatzea izango litzateke.

Bestetik, lurralde eremu zehatz, itxi eta homogeenetan oinarritzen ziren erakundearen gainditzea izango genuke, neurri handi batean bi prozesuek elkar elikatzen dutelarik. Gainditze prozesu honek, izan ere, gizarte naiz gizabanakoen mailan ematen ari den eraldaketa prozesuari aurre egiteko ezintasunarekin du lotura. Hemezortzigarren mende amaieran sortzen hasi ziren erakundeak dagoeneko ez dira sortu ziren garaian babestu behar zituzten helburuak babesteko gai agertzen: berdintasuna, askatasuna, solidaritatea edo kooperazioa, besteak beste, ilustrazioan finkatutako modernitatearen oinarriak, ezin dira, jada, estatu-naziotik bakarrik bermatu. Edo, zehatzago, ez Westphaliako Akordioaren ostean sortu zen nazio-estatu sistematik behintzat. Klima-aldaketa, arrisku nuklearrak, zibererasoak, finantza merkatuak edo terrorismo global bera ez dira nazio-estatuaren mugetara mugatzen eta, beraz, erantzun transnazionalak eskatzen dituzte¹⁵. Kudeatu behar diren gaien dimentsio transnazionalak estatu barnean hartzen diren erabakien ondorioak estatuaren mugetatik haratago somatu daitezten eragin du. Lurralde batek sortutako kutsadurak ez baitdu, nahitaez, kutsadura horrek sortutako euri azidoa pairatuko. Hau izan zen Ulrich Beck soziologo alemaniarren 1986 urtez gerotik, batez ere Txernobylgo hondamendiaren ondorio transnazionalak hauspotuta, ‘Arriskuaren Gizartearen’ inguruko ikerketetan azaldu zuena. Orduz gero halako gertakarien kopurua hazi besterik egin ez delarik, demokrazia beraren tresnetan eragina edukitzera iritsiz. Brexit-a, fenomeno politiko bat bada ere, dinamika berri honen erakusgarri izango litzateke ere: Erresuma Batuko hiritarrek hartutako erabakia bada ere, erabaki honen ondorioak Europar Batasun osoan inpaktu zuzena edukitzen ari dira (eta, behin betiko gauzatu gero, oraindik gehiago edukiko dute). Hala, ba, egungo erakundeak eta hauen funtzionamenduak errealtate kosmopolitizatu honetara egokitzea ezinbestekoa da.

Izan ere, kosmopolitizazioak ekarritako bi eraldaketa hauek ez dute, post-modernitatearen babesleek azaldu gisa, giza talde naiz erakunde hauek desagertuko direnik esan nahi. Ez eta nazionalismoa ikuspegi esentzialista batetik ikusten dutenek salatu gisa¹⁶, eraldaketa hauen ondoan nazionalismo aldaezin edo inperialismo menperatzaile baten artean aukeratu behar

dugunik. Estatus quo-a bere baitan babestu edo estatus quo-aren elementu guztiak ukatu behar direla ezartzen duen ustezko dikotomia, faltsua da. Izan ere, estatus quo-an funtsean dauden hainbat elementu kosmopolitizazio prozesu batean egon arren ezinbestekoak izaten jarraitzen dute: norbanakoen naiz taldeen nortasuna, zilegitasuna, solidaritatea, konfiantza, giza talde baten kide izatearen balore subjektiboa, eta abar. Egungo erakundeek naiz estroktuerek, erakunde hauek beraiek sortutako kosmopolitizazioaren ondorioz, funtsezko elementu hauek dagoeneko bideratu ezin badituzte ere, elementu hauek funtsezkoak izaten jarraitzen dute. Zentzu horretan, ezin ditugu hutsetik erakundeak berriz hausnartu, elementu horiek era inperfektuan bada ere gaur egun nola gauzatzen diren kontutan eduki gabe. Hau izango litzateke, behin berriz gurera ekarriz, kosmopolitizazio prozesuaren aurrean Euskal Herriaz eta bertan diren erakundeek hitz egiten jarraitzeak zentzua duela erakusten duena: Euskal Herrian aipatutako funtsezko elementuak gauzatzeko baldintzak, gauzatzeko hori eraldatu bada ere, bere horretan jarraitzen dutela. Baldintza hauek ahal bezainbeste gauza daitezten kosmopolitizazioari egokitzeko eraldaketa ezinbestekoa da, bai, baina funtsezko elementuak gauzatzeko baldintzak onartzea bezain ezinbestekoa. Ez gehiago, ez gutxiago.

Erronka honen aurrean, lehenik eta behin ikuspegi teorikoa aldatu behar dugu. Zer esanik ez Europar Batasuna bezalako laborategi politiko bati buruz ari garenean. Izan ere, Daniel Innerarityk dioten antzera¹⁷, Europar Batasunak duen lehen defizita ez da demokratikoa, ulermen defizita baizik. Hau da, Europar Batasunaren bilakaera eta, batez ere, Europan demokraziak duen etorkizuna bermatzeko gaur egun daukagun eragozpen nagusia ez dago erakundearen diseinuan. Arazoa ez da, zentzu honetan, behar ditugun erakundeak diseinatzea ez dugula asmatu. Arazoa, aldiz, erakunde horiek pentsatzeko orduan erabiltzen ditugun kontzeptuak dagoeneko aroz kanpo daudela da. Hau da, ez dugu erakundearen diseinua ondo pentsatzen. Kosmopolitizazio prozesuaren aurretik sortu ziren kontzeptu politikoak (subiranotasuna, boterea, eremu konstituzionalak edo integrazio bera) jada desagertzen ari den testuinguru baterako pentsatu ziren. Kontzeptu horietatik gaur egungo erakundeak pentsatzen jarraitzeak konponbide herrenak proposatzera garamatza. Aitzitik, ikuspegi teorikoa egungo konplexutasunera moldatzeko gai izango bagina, ikuspegi teoriko horretatik proposatutako aurrerabideak emankorra goak izan ahalko lirateke. Innerarity berak jartzen

duen ereduari eutsiz¹⁸: natur-zientzien arloan errealitatea ikuspegi lineal batetik pentsatzeari utzi zenean, errealitatearen azterketa doiagoak egin ahal izan ziren eta, ondorioz, errealitate hori eraldatzeko aukera berriak ireki ziren. Gizarte zientzien arloan ez zen eraldaketa hori egin eta arazoa parekoa da: hemezortzigarren mendean sortu ziren kontzeptuek, sortu ziren unean zeukaten esanahi berarekin behintzat, ez dute hogeitabat garren mendeko errealitatea aztertu eta errealitate hori eraldatzeko proposamenak sortzeko balio. Ikuspegi demokraziaren analisisa aurretik barneratu ditugun kontzeptuen zurruntasunetik ateratzea, era honetan erakundearen diseinu egokiago bat proposatu ahal izateko.

3. Ikuspegi demokratikoa aurrerabiderako ikuspegi gisa

Europar Batasunean bi izan dira, orohar, talkan egon diren ikuspegi teoriko nagusiak: subiranaren aldekoa eta federalismoaren aldekoa¹⁹. Lehenengoen ustez, Europar Batasunean aniztasuna bermatzeko bide bakarra lehentasuna estatu-nazioetan jartzea izango litzateke. Zentzu horretan, Europar Batasunean demos bakar edo bateratu bat ez dagoen neurrian, demokrazia ezinezkoa izango litzateke eta, beraz, Europar Batasuna gobernuen arteko akordioak antolatzen gunea besterik ez litzateke izango. Ikuspegi honen deribatu politiko kutsagarria nazionalismo baztertzaila eta populista izango lirateke. Izan ere, Europar Batasuna estatu-nazio perfektuen funtzionamenduan muturra sartzen duen erakunde arrotza besterik ez litzateke izango. Honen erakusgarri nagusia *take back control* (har dezagun berriz ere kontrola) Brexit-aren aldeko leloa izango litzateke, non erakunde europarrak herriari kontrola kentzen dioten agente gisa agertzen diren. Federalisten kasuan aldiz, estatu-nazioak Europar Batasunaren garapenerako oztopo gisa besterik ez dira ulertzen. Hala, ba, estatu-nazioen demos-ak demos europar batengatik ordezkatzeko bultzatuko luke. Hau da, estatu-nazioaren eredu Europan Batasunaren mailan erreplika dadin, bidean egungo estatu-nazioak eremu administratibo naiz folkloriko huts gisa utziz. Honen azken erakusgarri nabarmenena hogeitahamar Literatura Nobel sariek sinatutako 'Europa sutan' manifestua izango litzateke²⁰, non herriak proiektu europarra gauzatzeko oztopo gisa agertzen diren. Bi ikuspegi hauek, baina, ez dute aurreko atalean azaldutako kosmopolitizazio prozesuak

sortutako eraldaketei aurre egiteko gaitasunik. Izan ere, Europan Batasunerako gaur egungo nazio-estatu forma aldarrikatzen jarraitzen dute: estatu kide mailan dela, Europar Batasun mailan dela. Ondorioz, lehenengoak ez dira aurrean ditugun erronka amankomunei erantzuteko gai diren erakundeak eraikitzekeko kapaz, demokraziaren dimentsio funtzionala bertan behera utziz. Bigarrenak, aldiz, ez dira Europako demokraziaren oinarrian dagoen aniztasuna bermatzeko gai, demokraziaren dimentsio sustantiboa alboratuz.

Ikuspegi *démoikratikoa*, aldiz, Europan demokrazia demos bakar baten beharrik gabe eraiki daitekeela onartzetik abiatzen da. Hau da, demokrazia demo (i.e., demos aniztasuna) baten gainean eraiki daitekeela onartzetik. Zentzu horretan, bi dimentsioak bateragarriak direla aldarrikatzen du (federalismoaren garapen bat dela pentsatu ahalko litzatekeen arren). Europar Batasunean dauden demo guztiak Europan dagoen demokrazia mantentzeko ezinbestekoak direla defendatzen du. Hori beragatik Europar Batasuneko Ituneko 50. artikulua (lehendabizikoz Lisboako Ituneko 49. artikuluan ezarritakoa zehaztu zuena) ezinbestekotzat jotzen du: hain zuzen ere demo horien europar *démoikrazian* parte hartzea boluntarioa dela argi gera dadin. Era berean, baina, demo hori osatzen duten demos bakoitzak kosmopolitizatu dauden gizartearen erronkei bere baitan aurre egin ezin diela azaltzen du. Zentzu horretan, *démoikrazia* europarrean parte hartzea ezinbestekotzat jotzen du. Ez federalista tradizionalak dioten gisa, integrazioaren aldeko teleologia absolutu bat onartu behar delako (hau da, alternatibarik ez dagoelako), elkarlanerako esparruak sortzea guztion onurarako delako baizik. Izan ere, Europar Batasunaren proiektua ez zen sortu, askotan esan ohi den modura, proiektu anti-nazionalista gisa, proiektu anti-hegemoniko gisa baizik²¹: nazioak, elkarlanean aritu gabe, mehatxupean daude. Elkarlanean, aldiz, euren biziraupena bermatzen dute (Europa nazioen aurka dagoela esatea kontraesan bat delarik). Europa osatzen duten gizarteek Europa baitan ditugun erronkei aurre egin nahi baldinba die, gizarte horiek aitortu eta elkarlanean jartzea ezinbestekoa da. Azken finean, integrazio prozesua fisio eta fusio indarren arteko oreka inperfektu bat da eta. Hau da, *united in diversity* leloak islatzen dituen bi indarrak –aniztasuna eta batasuna– era berean garrantzitsuak diren heinean eta biak uneoro eraldatzen diren neurrian, oreka behin eta berriz pentsatu behar da. Hori da ikuspegi *démoikratikoaren* gakoa: utopia errealista bat dela,

alegia. Errealista da gaur egun Europan dauden demo-ak desagertuko ez direla (eta desagertu ez daitezten motiboak daudela) onartzen duelako. Utopikoa da ez diolako demos horien artean Europan demokrazia sendotu ahalko duen batasun bat eraikitzeari uko egiten.

Nola gauzatzen dira, baina, utopia errealistak? Estrategia pragmatiko bat erabiliz (betiere zinismoan erori gabe). Hau da, ekimen politikoaren helburuak (kasu honetan kosmopolitizazio prozesu batean dagoen Europan maila guztietako erakundeak errealtate berri honetara moldatzea) argi identifikatu eta apriorismorik gabe bilatuz. Honen eredu argiena, Europar Batasunaren kasuan, Europar Konstituzioaren saiakera izango litzateke. Kasu hartan, helburua konstituzio batek bermatzen dituen elementuak Europar Batasunean bermatzea izango zatekeen. Elementu guztiak ez aipatze arren, azter dezagun oinarrizko eskubideen babesa. Beharrezkoa al zen Konstituzio Europar bat onartzea Europan oinarrizko eskubideak bermatzeko? Ikuspegi aprioristiko batetik bai, noski: nola bestela bermatzen dira oinarrizko eskubideak konstituzio batekin ez bada? Ez al da hau modernitatetik, konstituzio demokratikoak pentsatu zirenetik, oinarrizko eskubideak babesteko modua? Europar Batasunaren kasuak, Konstituzio Europarraren saiakeraren porrotaren ostean, halako behar saihetsezinik ez zegoela erakusten du. Izan ere, Europar Batasuneko estatu kide guztiak Giza Eskubideen Europako Hitzarmena sinatu duten neurrian, Europar Batasun bera (erakunde gisa) hitzarmen horri lotua dagoen neurrian, Europar Batasuneko estatu kideek euren konstituzioetan oinarrizko eskubideen babesa islatzen duten neurrian eta, zer esanik ez, 2007 urteaz geroztik Europar Batasun bertan Oinarrizko Eskubideen Gutuna indarrean dagoen neurrian, ezinbestekoa al da Europar Konstituzio bat onartzea Europan giza eskubideak bermatzeko? Askoren esanetan ez, beraz ez da aprioristek esan bezain kontu argia. Hare gehiago, ikuspuntu aprioristiko batetik Europar Konstituzioa ezinbestean bultzatu nahi izan horretan, Europan oinarrizko eskubideak babesteko erregimen bateratu bat sortzeko ekimena kaltetu da. Izan ere, Estatu kide askok saiakera hori demos nazionalen erabaki zilegietan esku sartze bat balitz bezala ulertu zuten. Jarrera horretarako motiboak egon hala ez, helburua Europar Batasunean oinarrizko eskubideak babestea zein heinean (hau da, helburu horri dagokionez Europar Konstituzio bat onartzeak bere baitan baliorik ez zuen heinean), Europar Konstituzioaren saiakera ez zen emankorra izan.

Orohar integrazioari dagokionez, ikuspegi *démoikratikoak* hori bera sustatzen du: helburua ez baita demokrazia europarra sortzea, Europan demokrazia bermatzea baizik ('Europan' eta 'Europarra' arteko diferentzia, itxuraz fina bada ere, funtsezkoa delarik). Demokrazia europar bat bai edo bai bultzatzea, teoriaraz azalduko ez balitu ere (badituela²²), helburu hori bera lortzeko kaltegarria izan daitekeela onartzen du ikuspegi *démoikratikoak*. Zeintzuk dira, baina, proposamenaren oinarrian dauden printzipioak, hau da, pragmatismo hori zinismoan bilakatu ez dadin bermatzen dutenak? Bi azpimarratuko nituzke: elkarrekiko aitortza eta menperatze eza. Lehenari dagokionez, ikuspegi epistemiko batetik (hau da, errealitate bereizi gisa), bai eta nortasun eta baloreen ikuspegitik ere, bestearen aitortza egongo litzateke²³. Aitortza hori, gainera, elkarrekikoa da: nik neure buruari aitortza ematea nahi dudana neurrian, besteak aitortuko ditut. Ikuspegi *démoikratiko* batetik, aitortza honek bi eremu onartzen ditu: hiritarrena eta nazioen artekoa. Hiritarren ikuspegitik, elkarrekiko aitortzak, aniztasuna oinarrian jarritz (hau da, ez gaintutuz), erroka amankomunak sare lokalen bidez jorratzea errazten du. Azken finean, erroka horiek batetik komunak dira eta, bestetik, norbanakoek tokian tokiko berezitasunen arabera bizi eta heltzen dituzte²⁴. Nazioen kasuan, elkarrekiko aitortzaren arabera demokrazia unitate politiko ezberdinetan antolatzea espazio politiko baten berezko aniztasunari erantzuteko ezinbestekoa dela azaltzen du proposamen *démoikratikoak*. Eredu *démoikratikoak*, beraz, demokrazia sustatzen duten nazio europar ezberdinek elkar onartzean ipintzen du oinarria. Azken finean, baldintza hau betetzen den neurrian elkarlanari ekitean euren izatea arriskuan ez dagoenez, demos nazional hauek elkarlanari ekiteko faktore sustagarriak dituzte.

Honek, baina, bigarren printzipio bat bermatzea eskatzen du: menperatze eza, alegia. Izan ere, ikuspegi *démoikratiko* batetik ezinbestekoa da demoi horiek elkarlanerako sortzen duten erakunde egiturak demos horien aurkako interferentzia arbitrario naiz justifikatu gabeak baztertzea. Pentsamolde hau tradizio filosofiko errepublikarretik ateratzen du ikuspegi *démoikratikoak*²⁵. Honen arabera, askatasun politikoa ez litzateke, ikuspegi liberalak esan ohi duen gisa, zuzeneko interferentzia eza hutsa izango. Hau justifikatzeko esklabutza praktikatzeko duen pertsona jatorraren eredu jarri ohi da. Demagun pertsona batek esklabu talde bat duela bere kargu. Esklabuen jabe honek, bere esklabuak orohar bakean utzi ohi ditu, betiere euren esklabu baldintzan ditzuten betebeharrak betetzen

ditzuten neurrian. Baina betebeharrak bete ditzaten ez du zuzeneko interferentziarik egin behar. Askatasuna zuzeneko interferentzia falta bada, pertsona esklabu hauek askeak direla esan ahalko genuke: nola da posible, beraz, esklabuak askeak direla esatea? Agerikoa da oximoron bat izango litzatekeela. Beste ohiko eredu kolonia eta metropoliaren arteko harremanaren kasua litzateke. Laburbilduz, pentsa dezagun metropoli batek urruneko kolonia batekin duen harremana, motibo logistikoak tarteko, noizbehinka errekursoak hartzea besterik ez dela. Egun batean, baina, egoera geopolitikoa aldatu eta metropoliak kolonia hura galtzen du. Ondorioz, kolonia zen hartan hauteskundeak daude eta gobernu berri bat sortzen da. Gobernu berri honek lehenago kolonia zen gizartearen askatasunean zuzeneko interferentziak dakartzan neurriak hartzen hasten da (edozein gobernuaren kasuan gertatu ohi gisa): zerga legeak, derrigorrezko hezkuntza sistema, trafikoko legeak, eta abar. Hau da, gizarteak de facto kolonia garaian baina zuzeneko interferentzia gehiago dauzka orain. Zentzua eduki ahalko luke gizarte hori kolonia zenean kolonia izateari utzi duenean baino askeagoa dela esatea? Eredu laburtuak gaiaren konplexutasuna jasotzen ez badu ere (ez da hori helburua), agerikoa da gizarte burujabe batek kolonia zenean baino askatasun politiko zabalagoa duela. Zein da ba honen gakoa? Menperatze eza, hain zuzen ere.

Eredu *démoikratikoak* menperatze eza nazioen arteko harremanak zuzentzeko oinarritzeko printzipio gisa aurkezten du²⁶. Europan demokrazia bermatzen duten erakundeak (Europar Batasuna nagusiki) bere baitan dauden faktu politiko nazionalekin duen harremana ez da, beraz, menpekotasun harreman bat. Europako nazioak ez daude Europar Batasunaren menpe, besteak beste Europar Batasuna Europan dauden nazio berak bait dira ere. Europar Batasuneko nazioak, elkarlanerako proiektuan parte hartzen duten neurrian, nazio kide dira batik bat eta, zentzu horretan, ezin dira dimentsio europarra aintzakotzat eduki gabe ulertu: ez subiranotasunaren ariketaren ikuspegitik, ez nortasun nazionalaren ikuspegitik edo ez, bederen, lurraldetasunaren ikuspegitik ere. Baina, era berean, Europar Batasunean ezin da demokrazia bermatu bere baitan dauden nazioak bazter uzten badira. Nazio horiek, mantentzea aldebertasunez jada lortu ezin ahal duten arren, funtsean eskema demokratiko batean oinarritzen direlako. Hau da, nazio horietako hiritarren artean berdintasun politikoa, indar normatibo gisa, dagoeneko operatiboa delako. Hor dago eredu *démoikratikoaren* gakoa: Europan demokraziaren funtsean dauden

nazioen eraldaketa ezinbestekoa dela European demokrazia beraren eraldaketa bultzatu ahal izateko, eta alderantziz. Arazoa, baina, proposamen *démoikratikoaren* oinarrian dauden faktu politiko nazionalak oraindik estatu-nazio hutsak direla litzateke, eredu *démoikratikoaren* behin betiko garapenak beharko lukeen erradikaltasun demokratikoa neurri handi batean mugatuz. Hor sartuko litzateke, hain zuzen ere, Euskal Herriaren kasua bezalako kasuen garrantzia.

4. Euskal Herria ingurune *démoikratiko* batean

Non kokatuko litzateke Euskal Herria Europa *démoikratiko* horretan eta zergatik izan daiteke, beraz eredugarri? Lehenik eta behin, ikuspegi *démoikratiko* batetik Euskal Herria nola ulertu behar den azaldu beharko litzateke. Izan ere, testuan behin eta berriz aipatu gisa, ikuspegi *démoikratikoaren* jatorrian bi elementu egongo liriteke: faktu politiko nazionalak eta hiritarrak. Faktu politiko nazionalak lurralde eremu zehatz batean daude, hau da, mugak dituzte²⁷. Faktu politikoek, baina, oinarrian faktu sozial bat daukate. Zein baldintza bete behar ditu faktu sozial jakin batek faktu politiko bihurtu dadin? Faktu sozial bat pertsonen arteko harreman jarraituek sortzen duten fenomeno bat da²⁸. Gertuko eredu batekin irudiztatu daiteke: euren bizitza euskeraz egiten dutenek faktu sozial bat osatzen dutela esan ahalko litzateke, esate baterako. Hare gehiago, euskeraz hitz egin eta hitz egin ez arren euren bizitzetan euskarari nolabaiteko garrantzia ematen dioten pertsonak faktu sozial bat osatzen dutela esan ahalko genuke ere. Nola bihurtzen da faktu sozial hau, baina, faktu politikoan? Faktu sozial bat faktu politiko izan dadin hiru baldintza bete behar ditu: (1) faktu soziala osatzen dutenek faktu sozialak faktu sozial gisa duen estatusa onartzea (hau da, gu era intersubjektiboan faktu sozial honen kide gera eta faktu sozial honen kide izateak nire bizitza nolabait baldintzatzen du²⁹), (2) faktu soziala antolatuko duen arauak edo legeak ezartzea (hau da, faktu sozial honetako kide garenok geure arteko harremana era honetan antolatzea erabaki dugu) eta (3) faktu sozialaren etorkizunari begira nolabaiteko mantentze edo garapen nahia azaltzea (hau da, faktu sozial izaten jarraitzeko asmoa daukagula azaltzen dugu).

Orduan, faktu politiko guztiak nazioak liriteke? Ez: udaletxe bat, etxegabetzen aurkako talde bat edo LGBTI pertsonen

eskubideak aldarrikatu naiz defendatzen dituen talde bat faktu sozial baten inguruan sortutako faktu politikoak badira ere, ez dira faktu politiko nazionalak. Faktu politiko bat nazio bat izan dadin bi baldintza bete behar baitditu: lurralde jakin batean nazio horrekin identifika daitezkeen erakunde batzuk egotea eta lurralde horretako giza banakoek erakunde horiekin duten lotura, hiritartasuna hain zuzen ere, balioetsitzea. Etxegabetzen aurkako talde batek ez luke baldintzetako bat bera beteko, udaletxeek lehenengo baldintza betetzen dutelarik, esate baterako. Eta, nola ote dakigu hori hala den? Lehenari dagokionez, baieztapen enpiriko hutsaren bitartez, salbuespen gutxi batzuk badira ere³⁰. Bigarrenari dagokionez, nazioa bizi duten hiritarrek hala aldarrikatzen dutelako³¹. Izan ere nazioak gizakiok sortutako faktuak izan arren, honek ez du existitzen ez direnik esan nahi: kontingenteak direla baizik. Hau da, nazio batean bizi direnek, tokian-toki aldatzen diren hainbat faktore ezberdin tarteko (batzuk ia kasu guztietan ematen diren arren: eliteen babesa, esate baterako), nazio hori eraiki ala mantentzeko asmoa daukatela azaltzen dute. Era berean, agerikoa da kontingentzia horiek aktibatu, garatu edo bideratzeko baldintzak ez direla orohar neutroak edo ausazkoak izaten. Ostera, faktu politiko nazionalak agertzeko baldintzak betetzearen arrazoia unean une eta tokian tokiko botere desorekak izan ohi dira. Zentzu horretan, argi dago bidegabekeriak egon ohi direla faktu sozialak faktu politiko bilakatu edo ez bilakatu izanaren atzean. Edonola ere, dimentsio moral eta normatiboa inolaz ere gutxietsi gabe, Eusko Ikaskuntzaren Liburu Zuriaren egitasmo honen dimentsio praktikotik jarraituko dut nire analisia³².

Hala, ba, nazioak ulertzeko ikuspegi honetatik, Euskal Herria nazio bat al da? Euskal Herria faktu sozial bat dela ukatzea zaila da: besterik ez bada Euskal Herria eremu gisa hartuz gure harremanak maila askotan baldintzatzen ditugun pertsonak gauden neurrian. Faktu sozial hori ukatzea faktu sozial hori bizi dugunori geure bizipenak ukatzea dakar. Hau abiapuntu analitiko zuhur batetik ukazina bada (eta, ñabardurak-ñabardura, onarpen zabala duela esan ahalko litzateke, hau hemen azaltzen den argumenturako erabakigarria ez bada ere), funtsezko galdera Euskal Herria faktu politikoa izatearen inguruan egongo litzateke. Euskal Herri mailan hainbat arlotan erakundeak badirela dakigun arren (Jakiunde, Euskaltzaindia, alderdi politiko abertzaleak, kirol eta kultur txapelketak, gizarte zibileko hainbat erakunde edo Eusko Ikaskuntza bera, besteak beste), eta hautariko batzuk zentzu politikoa eduki dezaten arren (hau esan ahal izatea

erabiltzen dugun 'politiko' hitzaren zentzuaren arabera (den arren), agerikoa da ohikoa den zentzu zorrotzean erantzuna negatiboa dela. Izan ere Euskal Herria faktu politiko nazional gisa erakundetze bakar baten inguruan eraikia ez dagoelako. Hor sartuko litzateke, baina, ikuspegi *démoikratikoak* Euskal Herria bezalako eremu bat ulertzeko duen potentzial guztia. Lehenik ikus dezagun, baina, ikuspegi tradizioaletik nola ulertu beharko litzatekeen Euskal Herria faktu politiko gisa.

Zentzu zorrotzean hartuko bagenu, asko jota Euskadi edo Euskal Autonomi Erkidegoa (EAE) izango litzateke faktu politiko nazional gisa aurkeztu ahalko zatekeen subjektua. Izan ere, EAE-ren erakundetze prozesua naiz urteetan zehar eman diren hauteskundetako emaitzak aztertuz gero, hiru baldintzak betetzen direla nahiko argi dago: EAE-ko hiritarren gehiengo zabalak hiritar euskaldun gisa onartzen dute euren burua, EAE-ko hiritarren gehiengo zabalak Gernikako Estatutua onartzen du euren funtsezko antolakuntza arau gisa eta EAE-ko hiritarren gehiengo zabalak EAE-k errealtate bereizi gisa biziraun dezala nahi dutela modu iraunkorrean azaltzen dute. Lehenik hauek, gainera, ez daude alderdi nazionalista edo abertzaleen proiektuari nahitaez lotuak: diskurtso mailan unean-une honela ez aurkeztu arren, alderdien gehiengo oso zabalak hiru baldintza horiek onartuz jokatzen baitdute orohar. Honen froga nagusia, dena den, EAE faktu politiko nazional gisa definitzen duten hiru baldintzak kanpotik ukatuko balira gehiengoak hartuko lukeen erabakia izango litzateke: kanpo-autodeterminazioa edo estatu independentean osatzea, alegia. Nafarroako Erkidego Foralaren kasuan, bere erakundetze prozesuak naiz hauteskunde bilakaera historikoaren arabera, agerikoa da gehiengo zabal batek hiru baldintzak babesten ez dituela. Ez dirudi ere hiru baldintzetako bat ukatuko balitz independentziaren hautua gehiengo zabal batek babestuko zuenik. Iparraldeko kasuan, dimentsio subjektiboaz gain, duela ezer gutxi arte ez zegoen faktu politiko nazional gisa identifikatu ahal izateko gutxieneko erakunde bateraturik (hiritarren zati batek hala aldarrikatzen zuen arren). Zentzu horretan, Iparraldeko Euskal Hirigune Elkargoa aurrera pauso bat bada ere, ez dago gaur bere kasa faktu politiko nazional gisa aurkezteko asmorik edukiko duela pentsatzera daraman elementurik.

Hala, ba, Euskal Herria faktu politiko bateratu gisa ezin bada ulertu, nola da posible Euskal Herria nazio gisa ulertzea? Hau da, faktu soziala hiru erakunde eremu hain desberdinetan antolatzen bada eta hauek bi estatu-nazioen erakunde zati

bat besterik ez badira, zein zentzu ote dauka Euskal Herriaz nazio gisa hitz egiteak? Nazio bat ez al da demos bat, hots, erabaki burujabeak hartzeko gai den subjektu bat? Demokrasiaren ikuspegi tradizioaletik agerikoa da egoera zeharo aldatu ezean gaur egun ezin dela Euskal Herria demos bat denik esan (errealtate politikoez ari garenez, eta hauek berez kontingenteak direnez, gertatu daitekeen ukatu ezin den arren, noski). Izan ere, demos bat, definizio arrunt bati eusten badiogu³³, berdintasun politikora daraman elkarrekiko abantaila dakarten harreman kooperatiborako loturak dituzten giza taldeak dira. Ikuspegi tradizioaletik, lotura hauek demos batean bakarrik eman daitezke. Ikuspegi *démoikratikoa* bere azken ondorioetara eramango bagenu, baina, demoi ezberdinen artean eman daiteke ere. Lurralde eremu batean bizi diren hiritarren kopuru esanguratsu batek horretarako motiboak badirela uste badu, demos bereizien artean *démoikrazia* bat osatu bait daiteke. Alegia, ikuspegi *démoikratikoak* Europar Batasunari begira nazio bat izan gabe demoi batasun (union, ez unity) gisa osatzen ari dela ulertzea errazten duen era berean, Euskal Herriari begira ikuspegi hau demos bat izan gabe nazio gisa osatzen ari dela esan ahalko genuke. Hau da, faktu politiko ezberdinek osatutako nazio bat: nazio *démoikratiko* bat, hain zuzen ere.

Europa faktu sozial gisa ulertzeak, Europa bera faktu politiko nazional ezberdinek osatutako faktu politiko *démoikratiko* gisa ulertzea ahalbideratzen du, elkarlanerako egokiak diren erakunde garapenak ikuspegi pragmatiko batetik proposatzea erraztuz. Era berean, Euskal Herria faktu sozial gisa ulertzen dugunok, Euskal Herria faktu politiko ezberdinek osatutako nazio *démoikratiko* gisa garatu daitekeela defenda genezake. Hare gehiago, lehen aipatu gisa ohiko faktu politiko nazionalaren definizioa onartuz Euskadi edo Euskal Autonomi Erkidegoa faktu politiko nazional gisa deskribatu ahalko bagenu ere, bere baitan funtsezkoak diren hiru faktu politiko agertzen ditu: Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko herrialde foralak, Aldundiak erakundetze bereizi zentzuan duten papera ukaezina delarik. Hau da, egungo EAE-n, Aldundiak EAE-ko hiritarren hiritartasunean duten garrantzia kontutan edukirik, EAE barnean dagoeneko dinamika *démoikratikoak* ematen direla esan ahalko genuke. Hala, ba, Euskal Herria ikuspegi *démoikratiko* batetik aztertuz gero, erakundetze maila ezberdineko faktu politiko konplexu bat irudikatzea arrazoizkoa dela dirudi. Osotasuna osatzen duen erakunde bakar bat eduki ez arren garatzen ari den batasun bat, alegia. Ikuspegi honetatik, Euskal

Herriak mugatzen duen lurraldeko erakunde guztiek (eta, beraz, erakunde hauek ordezkatzen dituzten demoï guztiek) osatuko lukete Euskal Herria nazio *démoikratiko* gisa. Hau da, ez legoke estatu bakar bat gisa osatzeko beharrik Euskal Herria nazio gisa ulertzeko (lehen aipatutako moduan, behar hori kontingentea dela onartuz eta, beraz, aukera hau a priori baztertu behar ez den arren).

Proposamen honek, gainera, hiritarren ikuspuntutik erakundetzearen garapenerako tarte zabalagoa utziko luke. Izan ere, Euskal Herria nazio *démoikratiko* gisa ulertuz gero, gaur egun Euskal Herrian bizi diren hiritarren arteko tirabirak leundu ahalko lirateke. Lehenik eta behin, barnera begira, demoï bakoitzeko hiritarrek ez luketelako zertan euren hiritartasunaren oinarria arriskuan dagoenik pentsatu beharko: Euskal Herria *démoikrazia* gisa ulertzeak elkarrekiko aitortza eta menpekotasun eza nahitaezko printzipio gisa onartzea eskatzen duelako, hain zuzen ere. Era berean, Euskal Herriaren faktu soziala elkarbanatzen ez duten hiritar horiek (hau da, euren burua beste faktu sozial batean kokatzen duten euskal hiritar horiek) ez lukete euren hiritartasun zabalagoa zertan arriskuan ikusi beharko. Izan ere, Euskal Herriatik haratago dauden erakunde horiek Euskal Herriko demoï-en hiritartasuna onartzen duten neurrian, Euskal Herriarrek hiritartasun zabalagoak elkarbanatzea ez litzateke bere baitan arazo bat izango ikuspegi *démoikratiko* batetik. Hau da, euskal hiritarrak diren heinean, euskal hiritarrak hiritar europarrak izan ahalko lirateke, esate baterako. Faktu sozialak eta politikoak ez baitira bere baitan batzertzaileak. Gauza bera hiritar frantses edo espainiarrak izatearen kasuan, kasu hauetan euskal hiritartasunaren onartzea, orain artean behintzat, zalantzarriagoa izan den arren³⁴ (hau ere kontingentea delarik, beraz ikusiko da aurrerantzean zein bilakaera duen). Azken finean, euskal hiritarrek eurek hartutako erabakiak Euskal Herriatik at dauden hiritarren edukiko duten eragina kontutan eduki behar duten gisa, Euskal Hiritarrek euren bizitzetan eragina duten Euskal Herriatik kanpoko erabaki guneetan zeresana edukitzea *démoikraziaren ethos*-arekin bat etorriko litzateke. Hau hala izatea edo ez izatea kontingentea da, noski, eta beraz hemen aztertuko ez dudan eguneroko auzi politiko bat litzateke. Teorian, baina, ikuspegi *démoikratiko* batetik guztiz bateragarria izan ahalko lirateke.

Bukatzeko, zergatik ote litzateke Euskal Herria ikuspegi *démoikratiko* batetik nazio gisa ulertzea Europar Batasunaren

garapena ikuspegi *démoikratiko* batetik ulertzeko ekarpen baliotsu bat? Hiru elementu adierazi ahalko genituzke, betiere bakoitzak garapen luzeagoa eskatuko balu ere. Batetik, faktu politiko nazionalak estatu izan beharretik urruntzeak botere oreka berriak sortzeko bide emankorra izan daitekeelako. Zer esanik ez estatu-nazio tradizionalak menperatzen duten gaur egungo Europar Batasunean. Izan ere, faktu politiko nazionalak estatu dimentsio aprioristikotik aldenduz gero, integrazioan askotan eragozpen gisa agertu den “nortasun nazionala”-ren argudioa (estatuaren ustezko subiranotasun esklusiboa izendatzeko beste modu bat besterik ez dena) gainditu daitekeela frogatzen duen eredu praktikoa bat izan ahalko litzatekeelako. Bigarrenik, Euskal Herriaren oraindik garatzen ari den erakundetze prozesua Europar Batasunaren kasuan baino agerikoa eta organikoagoa delako. Hau da, Euskal Herriaren kasuan ez bezala, Europar Batasunaren kasuan dagoeneko epaitegia, legebiltzarra eta nolabaiteko gobernua badirela egia da. Euskal Herriaren nazio *démoikratiko* gisa eraikitze prozesuan gabezia hau oztopo esanguratsu bat dela egia den moduan. Hau ala izanik ere, baina, Europar Batasunak ikuspegi *démoikratiko* batetik ikusita Euskal Herriaren kasuarekin gabezia esanguratsu bat edukiko luke ere: erakundetze prozesu hori orohar ez dela hiritarren ekimenaren ondorioa izan. Euskal Herriaren kasuan (kasu nabarmenena Iparraldekoa delarik) aldiz, erakundetze prozesua motelagoa baina organikoagoa da, hiritar eta erakundeek osatzen duten demoï horretan oreka sendoagoak lortuz. Hirugarrenez, eta amaitzeko, Euskal Herriko hiritartasuna (gaur egun oraindik ‘hiritartasunak’ direnak) era barneratzaile, anitz eta malguan ulertzeko erronka *démoikratikoan*, Euskal Herriko konplexutasuna kontutan edukirik, *united in diversity* (aniztasunean batera) leloa gauzatzeko bide berriak agertu daitezkeelako. Europan abian dagoen kosmopolitizazioa kontutan edukita, aniztasuna eta batasunaren arteko oreka eraikitze egitasmo horretan Euskal Herriko kasuarekin elkarriketa emankorra sortu liteke.

5. Ondorioa

Sarreran Euskal Herriaz arduratzeak ea zein garrantzi duen galdetzen nuen. Jokoan dagoena ez da Euskal Herria izate abstraktu gisa. Aitzitik, jokoan dagoena Euskal Herria eraldaketa prozesu etenezin batean dagoen mundu batean, orohar, eta Europa batean, zehazki, kokatzeko gaitasuna da. Izan ere,

Euskal Herriaren kasuan, hau da, Euskal Herrian bizi diren pertsonen, Euskal Herriak munduko aniztasunari egiten dion ekarpen bereziaren eta, batez ere, Euskal Herrian garatzen ari den demokraziaren kasuan, mihiztadura egoki bat bideratzeko gai den ikuspegi teorikoa landu ahalko bagenu, aniztasunean elkarlanerako batasuna eraikitzeo aurrerapauso handi bat emango genuke. Erronka, beraz, bikoitza da.

Batetik, Euskal Herriak Europa osoan abian den kosmopolitaziora egokitzeko gaitasuna agertu eta nazio gisa bere erakundetzearen garapenean aurrerabide berriak garatzea izango genuke. Orain arte garapena argilunez josia egon da, bai marko kontzeptual eta diskurtsiboaren ikuspuntutik (betiko subiranotasun edo ikuspegi federalak eztabaidaren ardatz nagusiak izan direnez), bai eta aberriaren garapena gauzatzearen ikuspegitik (lurraldeen arteko desoreka politikoez gain, batez ere pairatu ditugun eta gehiegitan normalizatu diren giza eskubideen urraketa onartezinengatik). Ireki berria den etorkizunean berriz, zalantzarik gabe hobetu litekeen arren, egungo egonkortasun politiko, gizarte mailako, ekonomiko eta kulturalak ikuspegi *démoikratikoak* eskaintzen dituen garapenak esploratu eta gauatzeko egoera paregabean jartzen gaitu aberri gisa. Hor legoke bigarren erronka: testuinguru horretan utopia errealistaren planteamenduak azaldu gisa, apriorismoak baztertu eta bidea pragmatismotik jorratzea. Izan ere, egungo egoera paregabea bada ere, gure inguruan zailtasunak makalak izango ez direla dirudi. Honek nazio *démoikratikoaren* garapenari uko egin behar geniokela esan nahi al du? Ez, garapen horretan oztopoen aurka zuzen jo beharrean ordezeko bideak pentsatu beharko ditugula baizik. Epe labur-erdian, esate baterako, Euskal Herri mailako hautetsien legebiltzar bat sortzea nekez gertatuko den zer baita. Pentsa dezagun, beraz, geure garapen *démoikratikoan* legebiltzar batek betetzen dituen funtzioak zein beste eratara gauzatu ahalko genituzkeen (dagoeneko ditugun legebiltzarren artean harremanak sendotuz, esate baterako). Gauza bera Euskal Herrirako araudi amankomun bat sortzearen beharrari dagokionez: epe labur-erdian halakorik gertatuko denik ikuskatzea zail xamarra dirudienez, pentsa dezagun dagoeneko dauzkagun araudietan Euskal Herriko de facto (ez de jure) araudi baten eraikitzean nola sakondu ahalko genukeen. Hau da, Euskal Herriko demokrazia eraikitzeo xedeak ez gaitzala Euskal Herriko nazio *démoikratikoa* garatzeko aukera galtzera eramán. Aitzitik, Euskal Herria mundura irekitzen jarraitzeo leihoa izan dadila.

Azken finean, ikuspegi *démoikratikoak* ez bait dauka (ez Euskal Herriari dagokionez, ez eta Europaren kasuan) proposamen zehatz bat egiteko asmoa. Lan horrek disziplina ezberdin askotatik jorratutako ikerketa beharko luke. Europar Batasunaren kasuan egin dira hainbat saiakera, emaitza emankorrekin: bai eztabaida dinamizatzeari dagokionez, bai eta erakundetzea beste era batean ekiteari dagokionez. Euskal Herriaren kasuan, hausnarketa abian da. Izan dadila ikuspegi *démoikratikoa* hausnarketa kolektibo horretan gogoetarako bide berriak irekitzen laguntzen duen tresna bat. Erantzun egokirik ez baitago galdera egokiak egiten ez direnean.

Bibliografia

Albrow, Martin. *The Global Age*. Cambridge: Blackwell Publishers Polity Press, 1996.

Anderson, Benedict. *Imagined Communities: Reflections On the Origin and Spread of Nationalism*. London; New York: Verso, 2006.

Bauböck, Rainer. «Democratic inclusion: a pluralist theory of citizenship», OWEN, David-ek editatutako *Democratic Inclusion in Dialogue* liburuan atala. Manchester: Manchester University Press, 2018.

Beck, Ulrich. *The Metamorphosis of the World*. Cambridge: Polity, 2016.

Beck, Ulrich. «Redefining the Sociological Project: The Cosmopolitan Challenge», *Sociology* 46-1, 2012.

Beck, Ulrich. *Cosmopolitan Vision*, Londres, Polity Press, 2004.

Beck, Ulrich. *La sociedad del riesgo global*, Barcelona: Siglo XXI de España Editores, 1999.

Beck, Ulrich. *¿Qué es la globalización? Falacias del globalismo, respuestas a la globalización*, Barcelona: Paidós, 1997.

Beck, Ulrich eta Grande, Edgar. *La Europa Cosmopolita: Sociedad y política en la segunda modernidad*, Barcelona: Ediciones Paidós Iberica, 2004.

Bellamy, Richard eta Kröger, Sandra. «Representations Deficits and Surpluses in EU Policy-making», *Journal of European Integration*, 35(5), 2013.

Bengoetxea, Joxerramon. «The current European Crises: the end of pluralism?», Champeau, Serge; Closa, Carlos; Innerarity, Daniel eta Maduro, Miguel P.-ek editatutako *The future of Europe: democracy, legitimacy and justice after the euro crisis* liburuan atala, London: Rowman & Littlefield International, 2104.

Bentham, Jeremy. *An Introduction to the Principles of Morals and Legislation*, Oxford: Clarendon Press, 1907.

Berlin, Isaiah. *Concepts and Categories*, HARDY, Henry-k editatua, Princeton: Princeton University Press, 1999.

Breuilly, John. *The Oxford Handbook of The History of Nationalism*, Oxford: Oxford University Press, 2013.

Caney, Simon. *Justice Beyond Borders*, Oxford: Oxford University Press, 2005.

Cheneval, Francis. & Nicolaïdis, Kalypso. «The social construction of democracy in the European Union», *European Journal of Political Theory*, 16-2, 2017.

Delanty, Gerard. *The Cosmopolitan Imagination: The Renewal of Critical Social Theory*, Cambridge: Cambridge University Press, 2009.

Errasti, Ander. «Dêmoikrazia europarra kosmopolitazioaren erronkaren aurrean», *Europa krisiz-krisi: korapiloa askatzen* liburuan atala. Euorobasque, 2018b.

Errasti, Ander. «Legitimidad dêmoicratica en el horizonte cosmopolita europeo», Bilbeny, Norbert-ek editatutako *Legitimidad y Acción Política* liburuan atala. Barcelona: Editorial Universitat de Barcelona, 2018a.

Gellner, Ernest. *Nacionalismo*, Barcelona: Ediciones Destino, 1998.

Giddens, Anthony. *Runaway world. How globalisation is reshaping our lives*. London: Profile Books, 1999.

Hazon, Yoram. *The Virtue of Nationalism*, New York: Basic Books, 2018.

Innerarity, Daniel eta Errasti, Ander. «Cosmopolitan Public Space(s)» DELANTY, Gerard-ek editatutako *Routledge International Handbook of Cosmopolitanism Studies* liburuan atala, New York: Routledge, 2019, bigarren edizioa.

Innerarity, Daniel. «The European Union as a Complex Democracy», Innerarity, Daniel; White, Jonathan; Astier, Cristina eta Errasti, Ander-ek editatutako *New Narrative for a New Europe* liburuko atala. London: Rowman & Littlefield International, 2018.

Innerarity, Daniel. *La Democracia en Europa*. Barcelona: Galaxia Gutenberg, 2017.

Innerarity, Daniel. *La Política en Tiempos de Indignación*. Barcelona: Galaxia Gutenberg: 2015.

Innerarity, Daniel. «Does Europe Need a Demos to Be Truly Democratic?», *LEQS Paper* 77, 2014.

Innerarity, Daniel. *La transformación de la política*, Barcelona: Ediciones Península, 2002.

Levitsky, Steven eta Ziblatt, Daniel. *Cómo mueren las democracias*. Barcelona: Ariel, 2018.

Nagel, Thomas. *Equality and Partiality*, New York: Oxford University Press, 1991.

Näsström, Sofia. «Normative Power of Political Equality», Erman, Eva eta Näsström, Sofia-ak editatutako *Political Equality in Transnational Democracy*, liburuko atala, New York: Palgrave McMillan, 2013.

Nicolaïdis, Kalypso. «A démocratic conversation», *Thinking Beyond the State: Emerging Perspectives on Global Justice*, *STAIR Journal* 1, 2014

Nicolaïdis, Kalypso. «My Eutopia: Empathy in a Union of Others», *Re:Thinking Europe, Thoughts on Europe: Past, Present and Future* liburuan atala, Amsterda: Amsterdam University Press, 2016.

Pettit, Philip. «The republican law of peoples: A restatement», *Domination and global political justice: Conceptual, historical, and institutional perspectives* liburuan atala, London: Routledge London, 2015.

Requejo, Ferrán eta Sanjaume, Marc. «Secession and Liberal Democracy: The Case of the Basque Country», Cabestan, Jean-Pierre eta Pavcovic, Aleksandar-ek editatutako *Secessionism and Separatism in Europe and Asia. To have a state of one's own* liburuan atala, Londres: Routledge, 2013.

Sassen, Saskia. *Losing Control? Sovereignty in the Age of Globalization*, New York: Columbia University Press, 1996.

Sassen, Saskia. *The Global City: New York, London, Tokyo*, Princeton: Princeton University Press, 1991.

Sternberg, Claudia; Nicolaïdis, Kalypso eta Gartzou-Katsouyanni, Kira. *The Greco-German Affair in the Euro Crisis: Mutual Recognition Lost?*, London: Palgrave, 2018.

Tamir, Yael. *Why Nationalism*, New York, Princeton University Press, 2019.

Oharrak

1. Innerarity 2014, p.14.
2. Nagel 1991.
3. Bentham 1907.
4. Kontziente naiz herri bat naturan ageri diren espeziekin alderatzeak arazoak dakartzala, besteak beste espezien arteko desberdintasuna naturala den bitartean, herrialdeen arteko diferentziak gizakiak sortuak direlako batik bat: komunitate imajinatuak (Anderson, 1983), fikzio operatiboak (Daniel Innerarity, 2002) edo errealitate funtzionalak (Gellner 1996). Edonola ere, alderaketa ez da zentzu horretan aipatzen, kasuak alderatuz herri aniztasuna babestearen aldeko arrazoibide batek maiz egozten zaizkion gabeziak ez dituela agerian uzteko baizik.
5. Berlin (1999) 84.
6. Näsström (2013).
7. Bengoetxea (2014), Innerarity (2015), Levitsky eta Ziblat (2018)
8. John MacCormick, Neil Walker, Michael Keating edo Nicola McEwan ikerlarien lanak eta hauen eraginak, beste askoren artean, honen erakusgarri dira.
9. Gai hau beste lan batzuetan sakonago landu dut (Errasti 2018a, Errasti 2018b, Innerarity eta Errasti 2019), doktoretza tesian honen inguruan egindako ikerketaz gain (esteka honetan ikusgai: <https://repositori.upf.edu/handle/10230/33186>).
10. Breuilly (2013).
11. Delanty (2009) 43.
12. Beck eta Grande (2004).
13. Beck (2004, 2012).
14. Tamir (2019) 12.
15. Albrow (1996), Giddens (1999), Beck (1997, 1999, 2016).
16. Hazony (2018).
17. Innerarity (2017).
18. Innerarity (2018).
19. Hau luzeago azaldu dut Errasti 2018a liburu kapituluan.
20. <https://www.theguardian.com/commentisfree/2019/jan/25/fight-europe-wreckers-patriots-nationalist> Lacey (2017) 86-87.
21. Nicolaïdis (2016) 140.
22. Kalypso zergatik demokrazia europarra ez.
23. Sternberg, Nicolaïdis eta Gartzou-Katsouanni (2018) 2.

24. Sassen (1991), Sassen (1996), Beck (2016), Innerarity eta Errasti (2019).
25. Pettit (2015).
26. Nicolaïdis (2014) 15.
27. Muga horiek onartzearen ondorioak eztabaida daitezke eta eztabaidatzen dira (Caney (2005)), baina zaila da muga horiek gabe demokrazia posible dela imajinatzea (Bäubock (2018) 7).
28. Cheneval eta Nicolaïdis (2017).
29. Seymour (1998) 10.
30. Nazioa kategoria zabalago batean baldintza hauek betetzen ez dituzten nazioak ere badirela esan ahalko genuke (esate baterako nazio nomadak, Ijitoen kasuan gisa), baina argumentu honetarako ez da garrantzitsua.
31. Keating (2002).
32. Dimentsio morala beste lan batean jorratu dut: Errasti, Ander. «Do Claims on Fiscal Redistribution Justify Secession? A Moral Cosmopolitan Account», *CRIDAQ conference conference on fiscal federalism in plurinational societies* ekitaldiaren ondoan argitaratuko den liburuaren atala, Boucher, F. & Noel, A. (editoreak.), Peter Lang (forthcoming 2019).
33. Bellamy and Kröger (2013) 483.
34. Requejo (2013).